



## **2021-2022 IKASTURTEA ITZULERA-PLANA LEHEN HEZKUNTZA**

### 1. SARRERA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak Covid-19 birusaren aurrean Euskal Autonomia erkidegoko ikastetxeetan nola jardun zehazteko argitaratutako protokolo orokorra jarraituko dugu irailaren 8an hasiko dugun ikasturte honetan.

Honetarako beharrezkoa izango da ondorengo neurriak betetzea:

- a. Ikasleek ezin dute ikastetxera joan sukarra (>37°C) badute. Horrek esan nahi du familiek ikastolara iritsi aurretik tenperatura hartu behar dietela.
- b. Haurrei ez zaie tenperatura hartuko ikastolara sartu aurretik.
- c. Ikastolako sarrera-irteeretan eta eremu aldaketa bakoitzean, eskuak garbituko dituzte ikasleek.
- d. Ikasle eta langile guztiek izan beharko dute beren maskara eskola-egunean erabiltzeko higiene-baldintzak bermatuko dituen, gutxienez higienikoa eta dagokion ziurtagiria eta homologazioa izango ditu. Ordezko bat motxilan edukitzea gomendatzen da.
- e. Familiak lankidetzan arituko dira ikastolak oinarrizko higiene-ohiturak babesteko eta errazteko helarazitako jarraibideekin, hala nola: -ikastetxeko seinaleak errespetatzea, maskara erabiltzea, eskuak garbitzea, aretoak aireztatzea, bizikidetzatalde egonkorreko kide izatea,...
- f. Ikasle batek sintomak baditu ikastolan, familiari jakinaraziko zaio; beraz, kontakturako beharrezkotzat jotzen diren telefono zenbakiak eman beharko dira (bat baino gehiago ematea gomendatzen da).
- g. Ikasleak sintomak baditu etxean, familiak tutorea jakinaren gainean edukiko du eta aldaketa esanguratsuak jakinaraziko dizkio.
- h. Bentilazio etengabea egongo da geletan. Espazio bakoitzak CO2 neurgailua izango du eta markatzen duenaren arabera irekiko dira leihoak.

### 2. SARRERA-IRTEERAK ETA ORDUTEGIAK:

Protokoloak sarrera-irteeretan jende **pilaketak saihestu** behar direla jasotzen du eta horretarako egokia den antolamendua egin behar dela. LHn iazko



esperientziak erakutsi zigun sarrera orduak denboran mailakatzeak ez zuela pilaketarik ekidin. Ondorioz aurten **sarrera malgua** izango da pilaketak ekiditeko:

- a. Ikasleak **9.00-9.05** artean sartuko dira eta arratsaldez, **14:30- 14:35** artean
- b. Iritsi ahala **bakoitza bere espaziora** joango da eta **eskuak gelan garbituko** ditu. Jolas ordu eta irteera orduetan ere eskuak gelan garbituko dira.
- c. **EZ DA tenperatura hartuko** sarreran.

ORDUTEGIA	GOIZEZ	ARRATSALDEZ
LH OSOA	9:00-9:05 / 12:30	14:30-14:35 / 16:30

	SARRERA	IRTEERA
LH1	Ibaildeko sarrera	A eraikineko emergentzia irteera (plazoleta)
LH2	Ibaildeko sarrera	A eraikineko emergentzia irteera (plazoleta)
LH3	B eraikineko pergolako sarrera	B eraikineko pergolako atea
LH4	B eraikineko pergolako sarrera	B eraikineko pergolako atea
LH5	B eraikineko pergolako sarrera	B eraikineko emergentzia irteera (kiroldegia)
LH6	Ibaildeko sarrera	Ibaildeko irteera

### 3. IKASGELAK ETA MATERIALAK

- a. Ikasgeletan ikasleak taldeka egon ahal izango dira eta elkarekintzan sozializatu ahalko dute.
- b. Ikasgela barruan materiala partekatu ahal izango dute ikasleek.
- c. Ikasleen geletako kokapenak erregistratuta edukiko dira, kutsatze kasuetan inguruko ikasleak identifikatuta edukitzeko.
- d. Aireztapen etengabea egongo da geletan. Espazio bakoitzak CO2 neurgailua izango du eta markatzen duenaren arabera itxiko dira leihoak.



- e. Ikasle zein irakasleek bere mahaiak eta aulkiak desinfektatuko dituzte egunaren bukaeran eta komunen desinfekzioa egunean bi aldiz bermatuko da.
- f. Ikastola ez den eremu batera joaten garenean, bertako protokolo eta araudira egokituko gara.

#### 4. JOLAS GARAIK

- a. 2020/2021 ikasturtean izan genuen antolaketa bera izango dugu.
- b. Talde egonkor bakoitzak (ikastalde bakoitzak) bere eremua esleituta izango du.
- c. Hamaiketakoa aire librean egingo da, bakoitzak dagokion espazioan.
- d. Protokoloa jarraituz, hamaiketakoa jan ondoren musukoa jarri beharko dute.

#### 5. KASUEN KUDEAKETAK ETA KONFINAMENDUA

Ikastolan COVID-19rekin bateragarria den sintomatologia duten pertsona guztiek aurrez aurreikusitako jarduketa-protokolo bat jarraituko dute.

- a. Familiarekin harremanetan jarriko gara etxera eramateko. Familia lehen mailako arretako medikuarekin harremanetan jarriko da jarraibideak betetzeko.
- b. Kasua positiboa denean, familiak ikastolan jakinarazi beharko du eta ikastolako COVID arduraduna ikastolari esleitu zaion ESI medikuarekin harremanetan jarriko da. Kasuaren diagnostikoa izan arte ez da beste ekintzarik egingo.
- c. Puntu honetatik aurrera osakidetzatik agindutakoa bete beharko da, heuren esandako jarraibideak aintzat hartuz. Zuzendaria, covid erreferentea, irakasle eta hezitzaileak, jantoki arduraduna,... koordinatuta arituko dira etengabe.
- d. Konfinatuta dauden ikasleak streaming aukera izango dute. Horretarako eskaera orria bete beharko da eta tutoreari helarazi. Ikasleak ziklo bakoitzari egokitutako streaming orduak jarraitu ahal izango ditu.
- e. Ikasgela osoa etxean konfinatuta badago, irakaslearen eguneroko presentzia bermatuko da, baliabide digitalak erabiliz.